



Hauteskunde orokorrak. Agoizko emaitzak

Pasa den apirilaren 28an egin ziren hauteskundeek %76,95eko partaidetza izan zuten Agoitzen. Kontaketak garaipena eman zion EHBILDUri. Alderdiak 2016. urteko hauteskundeetan baino 116 boto gehiago eskuratu zituen oraingoan. Bigarren lekuan Unidas Podemos gelditu zen, jaitsiera nabarmena izan bazuen ere: 2016.ean 381 boto eskuratu zituen, eta aurtengoan, aldiz, 270. PSOE hirugarren lekura igo zen, 261 bozekin (141, 2016.enean). Laugarren tokia, berriz, Navarra Suma-rentzat izan zen (212 boto); UPN, PP eta C's alderdiak koalizio horretan baturik agertu baziren ere, urrun gelditu zitzairen 2016.ean eskuratutako aldeketasun kopurua (297).

	2019	2016
EH Bildu	458	342
Podemos	270	381
PSOE	261	141
Na+ (UPN-PP-C's)	212	-
Geroa Bai	97	54
VOX	40	-
PACMA	12	6
UPN-PP	-	240
C's	-	57

Gizartetxea, Agoizko gizarte leku berria



Agoitzek badu, dagoeneko, interes sozialeko baliabide berria. Bidezainen etxeak izandako eraikin multzoko bat egokitzeko obrak amaiturik, heldu den ekainaren 1ean hasiko da Gizartetxeako aktibitatea. Ate zabaleko jardunaldi bat antolatu zen, herritarrek instalazioak ikus zitzaten. Unai Lakok eta Maite Fernándezek zehaztasunez adierazi zituzten zentroaren arrazoiak eta helburuak, hala nola gizarte zerbitzu hori erabiltzea eskatzen duenak bete behar dituen baldintzak ere.

Gizartetxean ongi berezitutako bi espazio daude. Eraikineko solairu bat gizartearen arloan eta musustruk lan egiten duten kolektibo edo elkarteentzako egokitu da, bertan gizarte justiziaren aldeko aktibitateak egin ditzaten. Beheko solairuan, berriz, lana eta familia bateratzea xede duen jubiloteka zerbitzua eskainiko da. Adinekoak bere kargu dituzten Agoizko familiek leku berri hau erabili ahalko dute, atseden

momentuak hartzeko. 10 plaza ditu, eta jubilotekara joan ahal izateko baldintzak honako hauek dira: 65 urtetik gorakoa izatea, Agoitzen erroldatuta egotea eta menpekotasun handikoa ez izatea. Inskripzioa gizarte zerbitzuetan zein udaletxean bertan egin daiteke. Zentroaren asmoa da, gainera, lankidetzan aritzea osasun etxearekin eta Kanpondoarekin.

Gizartetxeak hainbat helburu ditu. Jubilotekarekin lana eta familia bateragarri egin nahi zaie bere karguan adinekorik duten familietako zaintzaileei, menpekotasun moderatua duten eta erresidentzian ez dauden pertsoneri arreta egitea. Lokal berriarekin emakumeen partaidetza eta presentzia suspertu nahi da gizarteko bizitzan, aukera berdintasuna lortzearen. Horretaz gain, gizarte boluntariotzarentzako elkargune espazio irekia eskaini nahi da.

JUBILOTEKAN ARITZEKO TEKNIKARIAREN KONTRATATZIOA. Duela gutxi, Agoizko udalak jubilotekaz arduratuko den langilea kontratatzeke deialdia egin du. Langile berria ekainaren 1etik abenduaren 31 bitartean arituko da, proba pilotu modura, lanaldi erdiz (goizeko 10:00etatik 13:00etara). Izangaien profila honakoa da: Gizarteratzean tituluduna, Gizarte Lana, Okupazio Terapia edo Gizarte Hezkuntza graduetan diplomaduna edo psikologian edo pedagogian lizentziaduna izatea.

“Feminismoen landa eskola” ikastaroa



Pasa den apirilaren 17an hasi zen Gizartetxeko lokal berrietan lehenengo ikastaroa, «Feminismoen Landa Eskolak» deitutakoa. Izaga Gizarte Zerbitzuak antolatu zuen, IPES Fundazioaren laguntzarekin batera.

Feminismoei buruzko lehen trebakuntza modulua da, eta abendua arte luzatuko da. Zazpi saio aurrikusita

daude, bakoitza bi ordu eta erdikoak, eta hilean behin izanen da.

17 emakumek eman dute izena. Ikastaroaren edukiak, besteak beste, honakoak dira: genero teoriaren oinarriko kontzeptuak, feminismoaren historia eta menderatze-mendekotasun binomioa, emakumeen aurkako bortizkeriaren prozesu giltzarriak.

Proposatzen den metodologia dinamikoa eta parte-hartzailea da, eta, alderdi teorikoa ukitzeaz gain, eztabaida eta elkarrizketa baliatuko ditu.

Honako hauek dira “Feminismoen Landa Eskolak” ikastaroaren irakasleak: Rut Iturbide Rodrigo (Giza eta Gizarte Zientzian doktorea), Pilar Bobes Fernández (historialaria), Itziar Ziga (kazetaria eta idazlea) eta Mauge Cañada Zorrilla (psikologoa).

Trebakuntza ikastaroak

Nafarroako enplegu zerbitzuak, Agoizko Udalarekin batera, iraupen luzeko bi trebakuntza ikastaro antolatu ditu datozen hilabeteetarako.

Lehenengoa «Industriarako balio anitzeko operatzaile» izeneko da, 80 orduko iraupena izanen duena, eta maiatzaren 31tik ekainaren 13ra bitartean emanen dena. Arrakastaz bukatzen duenak eskorga gidari, zubi garabia eta plataforma jasotzaile baimena eskuratuko du.

Bigarrena, ekainaren 4a arte gizarte erakundeetako gizate-osasun arreta emateko agiria osatzen duten moduletako bat emanen den ikastaroa da. 100 orduko formakuntza da, eta geriatría erresidentzian lan egiteko balio du.

Bi ikastaro hauetako edozeinetan parte hartzeko, interesatuek Agoizko enplegu zerbitzura joan beharko dute edo, bestela, telefono honetara deitu: 948 33 61 79.

Modu berean, Cederna Garalur elkarteak maiatzaren 21 eta 28ko goizetan bi tutoretza saio antolatu ditu. Udaletxeko Aurelio León aretoan emanen dira. Tailerrak egiteko beharrezkoa da Excel aplikazioa duen eskuko ordenagailua eramatea. «Antolatu zure paperak Ogasunarekiko betetzeko» eta «Nola egin Ogasunarekiko tramiteak on-line eta ziurtagiri digitalen bidez» izenekoak dira eskaintzen diren ikastaroak. Izena emateko, e-mail bat igorri behar da prepirineo@cederna.es helbidera edo 639 905 359ra deitu.



6 langile berri, udan udal brigadari laguntzeko

Aurki, lan anitzetarako lau langile berri hasiko dira lanean. Sei hilabeteko kontratu-aldia izanen dute, eta haiekin udal brigadako plantilla handituko da. Pertsona horien zeregin nagusia eguneroko garbiketa lanetan eta herria hobetzeko eginkizunetan aritzea izanen da.

Udako hilabeteetan beharrezkoa izaten da langile kopurua handitzea, gure herriko zenbait lekutan hobekuntzak egin ahal izateko edo instalazioen

mantenimendua hobetzeko. Hartutako langile berri hauen kontratuetarako Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso da, Nafarroako Enplegu Zerbitzua-aren bidez.

Kontratazio horietaz gain, oinarriko errenta (RIIS) jasotzen duten bi langile gehiago hartu dira. Langile horiek ere lanaldi osoa dute eta hamabi hilabetez arituko dira.



Dagoeneko 2703 biztanle gara Agoitzen

Agoitzek 2018ko urtarrilaren 1ean eta 2019ko data berean zituen biztanleekin aldaratzen baditugu, 67 pertsona gehiago ageriko zaizkigu udal erroldan, izan ere, azken data horretan 2.703 biztanle zeuden erroldaturik.

Sexuen araberako portzentajea

oso berdintsua da: %49 (1.324) emakumeak dira eta %51 (1.379) gizonezkoak.

Nabarmentzekoak dira udal errolda aldatu duten faktoreak. 17 haur jaio ziren, eta, aldiz, 24 hildako izan ziren (2016. urtean hildakoen kopurua 40tik gorakoa izan zen).

Erresidentzia aldaketei, herrien zein herrialdeen artekoak, dago-kienez, 225 alta eman dira eta 140 baja.

Udalerrri barnean ere helbide aldaketak eman dira, 40 hain zuzen ere (horietako 16, gizonezkoak, eta 24, emakumezkoak).



Kontsumitzaileen zitak adosteko egutegia

Nafarroako Irache Kontsumitzaileen elkarteak ezagutzera eman du heldu diren hilabeteetan arreta emateko egutegia. Maiatzaren 29a eta ekainaren 26a (asteazkenarekin) dira bertaratzeko eman dituzten egun berriak.

Zerbitzua emateko ordutegia 10:00-13:00 bitartekoa da, eta alde aurretik hitzordua eskatu beharko da 012 telefonoaren



bidez. Zerbitzuari esker, honako gaiei buruzko aholkularitza izan dezakete herrikoek: etxebizitza, aseguruak, bankuak, aurrezki kutxak, etxeko zerbitzuak, tailerrak, zerbitzu teknikoak, merkataritza eta administrazioa...

Kontsumitzaileen bulegoa Agoizko Udaletxeko bigarren solairuan dago, eta doanekoa da interesatutako guztientzat.

Agoitzek dena eman zuen Korrikarekin

"Klika" lemapean burutu zen AEK-k antolatutako Korrikaren 21. edizioa. Apirilaren 4an Garesetik abiatu eta eta hile bereko 14an bukatu zen Gasteizen. Milaka euskaltzalek korrika egin zuten, eta inoiz baino arrakastatsua izan zen.

Aurtegoan, Agoitz larunbatarekin gurutzatu zuen lasterketak. Apirilaren 6an izan zen. Agoizko udalak, egiten ohi duen moduan, kilometroa erosi zuen, gure hizkuntzarekin eta helduen euskalduntzearekin duen konpromisoa adierazteko. Herrira ailegatu baino lehen markatutako kilometroa egokitu zitzaion.

Hiri barnean, San Migel ikastetxeak eta 0-3 urteko eskolak hartu zuten lekukoa. Herriko kaleetan barna, jende asko egin zuen korrika, baina ikusle ugari agertu ziren espaloietan.

Korrikak Agoitz zeharkatu zuen egun berean ospatu zen Euskaren Eguna. Ospakizunerako aktibitate bereko ordutegia osatu zen.

Eguerdian kantuz-kalejirak herriko kaleak alaitu zituen, frontoian hasita merkatuko plazaraino. Ondoren herri bazkaria egin zen Angiluerreka elkartearen. Arratsalde partean, berriz, gazteentzako scape room saio bat antolatu zen Ikastolan. Amaitzeko, Simplex musika taldeak dantzaldia eskaini zuen.

Agoitzek dena eman zuen euskararekin, eta kaleak kolorez eta ilusioz bete zituen. Jardunaldian partaidetza handia izan zen, bai lasterketan bertan bai Euskararen Egunaren ekitaldietako bakoitzean.



Tximeletak behatzeko tailerra

Udalak antolatu eta Zerynthiak, tximeletak behatzeko eta hedatzeko ikerketa egiten duen irabazi asmorik gabeko elkarteak prestaturikoa izan zen. Agoitzen egin zen intsektua behatzeko eta ezagutzeko tailer bat.

Jarduerara adin guztietako hogeita hamar bat pertsona joan ziren. Hitzaldi batekin hasi zen. Bertan azaldu zen tximeleten bizitza zikloa eta baita izaten duten jokaera ere. Intsektu talde honek ekosistemaren polinizaziorako duen garrantziari azpimarra jarri nahi izan zioten. Ondoren, Angiluerrekara joan ziren oinez, eta zehaztasunez ikusi zituzten zenbait espeziatako aleak arrautzak jartzen, beldarrak eta krisalidak. Bitxia da tximeleta bakoitzak, birsortzeko, landare eta forma desberdin bat aukeratzen duela

Kultur balantzea

Apirilean zehar oraindik izan genituen Javier Vilarealen "Beltz" erakusketaz gozatzeko egun batzuk. Erakustaldiak ongi berezitako bi parte zituen: alde batetik "mapa mentalak eta sentsualak" deitutako atala, eta, bestetik, teknologia aitzindariak baliatuz, laserra, besteak beste, osaturiko lanak.

Horretaz gain, Mariano García Zalba musikari Agoizkoa izan zen Bilaketak antolatutako erakusketaren protagonista. Jose Hierro aretoan, konpositorearen ibilbidea adierazten zuten zenbait dokumentu eta obra jarri ziren ikusgai. «Sanferminetako bezpenak» pieza ezagunaren egilearen heriotzaren 150. urteurrena ospatzeko zikloa amaitzeko hitzaldi bat antolatu zen.

Liburua ere protagonista izan zen. "Agoizko Hiria" narrazio laburraren XIII. Edizioaren deialdia egin zen, eta, horretaz gain, topaketa saio bat egin zen María Molina García idazlearekin.



ikustea, eta baita horretarako nola ezkututzen diren. Jardunaldi interesgarria, inguruan paseatzera joaten garenean gure ibilaldia aberats dezakeen miniaturazko mundu hori ezagutzeko.



Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Gizar-tetxean eman zituen menopausiari buruz hitz egiteko 45-55 urte bitarteko emakumeei zuzendutako tailer baten hiru saio.

Musikak ere bere lekua izan zuen hileko agenda. San Migel abesbatzak Aste Santuan eskaintzen ohi duen eliz musikako kontzertua eman zuen, Alemaniara joan aurretik. Bidaia 75. urteurrenaren kariatara antolatutako aktibitate anitzetako bat izan zen. Eta musika eskolak ere errepikatu zuen ohiko kontzertu didaktikoarekin.

DBH-ko 4. mailako ikasleek, ikasbidaia egiteko dirua lortzeko "Marierrauskin" musikala prestatu eta eskaini zuen. Urtero bezala, Irati antzerki taldearen laguntzarekin landu zuten, eta eskainitako bi saioen kasuan "Txartelik ez dago" zintzilikatu behar izan zuten.

